



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
**(GIPUZKOA)**

**2014ko UZTAILAREN 17an**  
**EGINDAKO OHIKO OSOKO**  
**BILKURAREN AKTA**

Olaberrian, 2014ko uztailaren 17an, 18:05ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea, Jokin Garmendia Asurabarrena, Jose Manuel Garrido Fernández, Amaia Cuellar González, Jose Antonio Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti eta Gema Echaniz Badiola eta Iñigo Sarasola Aranzasti zinegotziak.

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arebalo Benito, Udaleko Idazkari Kontu-hartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

**AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA.**

- 2014ko maiatzaren 29ko Ohiko Batzarraren akta.
- 2014ko ekainaren 19ko Ez-Ohiko Batzarraren akta.

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO**  
**CELEBRADO EL 17 DE JULIO DE 2014.**

En Olaberria, a 17 de julio de 2014, siendo las 18:05 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde Jokin Garmendia Asurabarrena, los concejales José Manuel Garrido Fernández, Amaia Cuellar González, Joseba Barandiaran Estala, José Bernardo Aldasoro Insausti, Gema Etxaniz Badiola e Iñigo Sarasola Aranzasti.

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arebalo Benito.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, el Alcalde declara abierta la sesión pasándose a examinar el primer asunto del Orden del Día.

**APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LA SESIONES ANTERIORES.**

- Acta de la Sesión Ordinaria del 29 de mayo de 2014.
- Acta de la Sesión del Pleno Extraordinario de 19 de junio de 2014.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

2014ko maiatzaren 29ko Ohiko Osoko Bilkuraren akta aho-batez onartzen da.

2014ko ekainaren 19ko Ez-Ohiko Bilkuraren Aktaren inguruan:

OHE taldearen zinegotzia den Jose Bernardo Aldasoro zinegotzia ez dago HAPO-aren inguruan aurkeztutako alegazioen ebazpenaren inguruan bere botoaren zentzua azaltzen zuen zatia idazkariak jaso duen moduarekin ados.

“Alegazio batzuk ez direla Plan Generalekoak” aipatu zuela dio berak eta ez udaleko idazkariak Aktaren zirriborroan jasotakoa.

Dio puntu hau aldatzekotan, Aktaren onarpenaren aldekoa izango litzakeela bere botoa.

Bestalde, BILDU taldeko zinegotzia den Iñigo Sarasola jaunak, Aktaren 3. orrialdean jasotako 2. alegazioaren ebazpen proposamenean, erderazko zatian, akats bat dagoela aipatzen du: “estimar” jartzen duen lekuan “no estimar” legoke.

Idazkariak, bai Aldasoro jaunak baita Sarasola jaunak ere egindako aipamenak aztertzen ditu eta Aktan aldaketa egitea erabakitzen du zinegotziek esandako eran.

Beraz, akta aho-batez onartzen da aipatutako baldintzetan.

El Acta de la Sesión Ordinaria del 29 de mayo de 2014 queda aprobada por unanimidad.

El Acta de la Sesión del Pleno Extraordinario de 19 de junio de 2014:

El concejal del grupo OHE Jose Bernardo Aldasoro no está conforme con la forma en la que se ha recogido su intervención cuando exponía el sentido de su voto en el punto referente a la resolución de las alegaciones presentadas al PGOU.

Afirma que lo que dijo fue que “algunas alegaciones no son del Plan General, “ y no lo que recogió la secretaria municipal en el borrador del Acta.

Asegura que de modificarse este punto, su voto sería favorable a la aprobación del Acta.

Por otro lado, el concejal del grupo BILDU Iñigo Sarasola manifiesta que ha habido un error en la parte escrita en castellano en la propuesta de resolución de la alegación nº 2 recogida en la página 3 del Acta.

En lugar de “estimar” la alegación se debería de haber recogido “desestimar”.

La Secretaria revisa tanto lo dicho por el Sr. Aldasoro como lo manifestado por el Sr. Sarasola y acuerda proceder a la modificación del Acta en el sentido aducido por los concejales.

Por lo tanto, se aprueba el acta por unanimidad con las condiciones citadas.



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
**(GIPUZKOA)**

**ALKATETZAKO GAIAK**

**ALKATETZA-EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 84/2014tik 103/2014-ra bitartean.

Udal kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

**IKUSKARITZA PROZEDURATIK ERATORRITAKO ZEHAPEN BARKAMEN ESKAERA.**

Joan zen Batzorde Informatzailean gaiaren berri eman zitzaien Udal-Kideei.

OLZI-2013-0007 ACE eta OLZI-2013-0007 ACO ikuskaritza espediente zenbakidun enpresak Olaberriko Udaleko ikuskaritza zerbitzuek ikuskaritza prozeduratik eratorritako zehapenen barkamen eskaera egin dute.

Era berean, goian aipatutako espediente zenbakiei dagokien ikuskaritza prozeduratik eratorritako zorraren ordainketaren zatikatzea eskatu dute.

**TEMAS DE ALCALDIA**

**DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.**

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 84/2014 al 103/2014.

Los corporativos quedan al corriente.

**SOLICITUD DE CONDONACIÓN DE SANCIÓN DERIVADA DE PROCEDIMIENTO DE INSPECCIÓN.**

Se expuso el tema a los Corporativos en la pasada Comisión Informativa.

La mercantil con nº de expediente de inspección OLZI-2013-0007 ACE y OLZI-2013-0007 ACO ha presentado solicitud de condonación parcial de sanción de deuda derivada del procedimiento de inspección de tributos locales, que se ha llevado a cabo por los servicios de inspección del Ayuntamiento de Olaberria.

Asimismo, ha presentado solicitud de fraccionamiento de pago de la deuda tributaria derivada de procedimiento de inspección con respecto a los expedientes citados en el párrafo anterior.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

Barkamen zein ordainketa atzerapena eskatzen diren udal zerga mota eta ekitaldiak honako hauek dira:

- Jarduera ekonomikoko zerga, 2010-2013 ekitaldiak.
- Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga, 2009ko irailetik-2013ko irailerainoko epealdia.

2013ko maiatzaren 23ko Batzarrean Olaberriko Udalak, udal zergen ikuskaritza prozeduretatik eratorritako zehapenen barkamenaren inguruan zenbait irizpide onartu zituen, portzentajeak honako hauek hain zuzen ere:

- 1) %10ekoa, zerga arloko arau haustea lehenengo aldiz egin deneko ikuskaritza prozeduretan.
- 2) %10ekoa, zergapekoaren kolaborazioa egon deneko ikuskaritza prozeduretan.
- 3) %50koa, likidazio guztiak (hala dagokion zergaren erregularizazioarenak, nola zerga zigorrarenak) luzatu eta gehienez ere, hurrengo 6 hilabeteetan ordainduko direla jasotzen duen ordainketa plan bat sinatu deneko

Los tributos locales y los períodos por los cuales se solicita la condonación y fraccionamiento son los siguientes:

- Impuesto de actividades económicas, ejercicios 2010-2013.
- Impuesto de construcciones, instalaciones y obras, período septiembre de 2009-septiembre de 2013.

En Sesión Plenaria de 23 de mayo de 2013, el Ayuntamiento de Olaberria aprobó una serie de criterios de condonación de sanciones derivadas de procedimientos de inspección de tributos locales, cuyos porcentajes de condonación son los siguientes:

- 1) 10% para los procedimientos de inspección en los que la infracción tributaria se haya cometido por primera vez.
- 2) 10% para aquellos procedimientos de inspección en los que ha existido colaboración del obligado tributario.
- 3) 50% para los procedimientos de inspección en los que se pacte un plan de pago de liquidaciones (tanto de regularización del tributo correspondiente, como de sanción) como máximo de 6 meses desde la emisión de las liquidaciones. Además de lo anterior, para que se pueda



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

ikuskaritza prozeduretan. Horretaz gain, barkamen portzentaje hau aplikatu ahal izateko, enpresak bere langile guztien lanpostuak mantendu behar izango ditu epe horretan.

aplicar este porcentaje de condonación, la empresa deberá mantener los puestos de trabajo de todos sus trabajadores durante dicho período.

Interesdunak, zorra barkatzeko hiru ukanbeharrak betetzen ditu, epe horretan langile guztien lanpostuak mantentzeko baldintza kontrolatzeke geldituko litzakeelarik. Honi eransten baldin badiozu, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak IV tituluan xedatzen duen lez, zigorraren zenbatekoa %40 murrizteko aukera dagoela zergapekoak erregularizazioari nahiz zigorrari adostasuna ematen dienean, zehapenaren hasierako kopurua %82-n murriztu daiteke, barkamen eta murrizketaren artean.

El interesado cumple con los tres requisitos exigidos para la condonación de la deuda, quedando pendiente de control la exigencia de la permanencia de toda la plantilla de trabajadores durante ese período. Esto unido a la reducción del 40% de la sanción para los supuestos de conformidad del obligado tributario, tanto a la regularización como a la sanción, que prevé el título IV de la Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, hace posible que la reducción total de la sanción pueda alcanzar el 82%, entre reducción y condonación.

Gaia behar bezala eztabaidatu ondoren, udal-kideek honako erabaki hau hartu dute gehiengo absolutuz, BILDU taldeko aurkako botoekin:

Tras debatir el tema suficientemente, los corporativos toman el siguiente acuerdo por mayoría absoluta, con el voto en contra de los concejales del grupo BILDU:

LEHENA: OLZI-2013-0007 ACE eta OLZI-2013-0007 ACO ikuskaritza espediente zenbakidun enpresari, ondoren aipatzen diren zerga eta ekitaldietatik eratorritako zehapena barkatzea, hasierako zehapena % 82-an murrizten delarik, murrizketa eta barkamenaren artean.

PRIMERO: Condonar a la mercantil con nº de expediente de inspección OLZI-2013-0007 ACE y OLZI-2013-0007 ACO la sanción derivada del procedimiento de inspección de tributos locales, reduciéndose la sanción inicial en un 82% entre reducción y condonación.

Barkamen eta murrizketa aplikatzen zaion zerga:

Tributo al que se le aplica la condonación parcial:



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

- Jarduera ekonomikoko zerga, 2010-2013 ekitaldiak.
- Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga, 2009ko irailetik-2013ko irailerainoko epealdia.

- Impuesto de actividades económicas, ejercicios 2010-2013.
- Impuesto de construcciones, instalaciones y obras, período septiembre de 2009-septiembre de 2013.

2013ko maiatzaren 13ko Batzarreko Akordioan zehaztutako baldintzak betetzen dituelako eta bertan aurreikusten den eran eta mugen arabera.

por considerar que cumple con los criterios establecidos por acuerdo plenario de 23 de mayo de 2013 y en los términos y con los límites previstos en el citado acuerdo.

BIGARRENA: Zehapenaren %50-aren barkamena honako baldintza honetara menpekotzea: enpresak langile plantilla mantendu beharko du, gutxienez, zorraren ordainketa epean zehar.

SEGUNDO: Supeditar la condonación del 50% de la sanción al mantenimiento de toda la plantilla de trabajadores de la empresa, durante al menos, el período de pago de la deuda.

HIRUGARRENA: OLZI-2013-0007 ACE eta OLZI-2013-0007 ACO ikuskaritza espedientei dagokien zorraren zatikatzeko eskaera onartzea, egindako eskaeran zehaztutakoaren arabera.

TERCERO: Aprobar la solicitud de fraccionamiento de la deuda tributaria derivada de procedimiento de inspección municipal referente a los expedientes OLZI-2013-0007 ACE y OLZI-2013-0007 ACO, en la forma referida en la solicitud realizada.

LAUGARRENA: Akordio hau enpresa interesdunari jakinaraztea.

CUARTO: notificar el presente acuerdo a la empresa interesada.

Sarasola jaunak galdetzen du prozedura hauetan ia zenbat diru barkatzen ari den guztira.

Idazkariak zera erantzuten du: informazio hori badaukala, zinegotzi guztiei ematen zaiela barkamen eskaera dagoen bakoitzean, dena den, datu hori

El Sr. Sarasola, pregunta que cuánto dinero se ha condonado hasta ahora por medio de este procedimiento, a lo que la secretaria le informa de que esa información se les da a todos los concejales cada vez que hay una solicitud de condonación, por lo que ya la tiene, sin



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
**(GIPUZKOA)**

kontulariztatik atera daitekeela.

**HIRIGINTZA BATZORDE BEREZIA**

**OLABERRIKO UDALERRIKO HIRI  
ANTOLAMENDUKO PLAN  
OROKORREKO  
DOKUMENTUAREN ONARPEN  
PROBISIONALA.**

Olaberriko Udalak, 2014ko ekainaren 19an egindako Ez Ohiko Osoko Bilkuran, behar bezala aztertu ondoren, Olaberriko Hiri Antolamenduko Plangintza Orokorraren (HAPO) behin behineko dokumentuari aurkeztutako alegazioak zein baloratu ziren beste zenbait gai ebatzi zituen.

Aipatutakoan oinarrituz, Hiri Antolamenduko Plangintza Orokorra birformulatzen da, 2014ko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiak barneratuz.

2014ko uztailaren 10eko planeamenduko batzorde berezian, birformulatutako dokumentua aurkezten zaie Udal-kideei baita azaldu ere.

Ondorioz, onarpen probisionalerako aurkezten den dokumentua aski aztertu ondoren Udal-kideek honako hau erabakitzen dute:

**LEHENENGOA:** Gehiengo absolutuz, OHE eta BILDU taldeen aurkako botoekin, Olaberriko udalerriko Hiri

embargo, también se puede extraer de la contabilidad.

**COMISION ESPECIAL DE  
URBANISMO**

**APROBACIÓN PROVISIONAL DEL  
DOCUMENTO DEL PLAN GENERAL DE  
ORDENACIÓN URBANA DEL  
MUNICIPIO DE OLABERRIA.**

El Ayuntamiento de Olaberria, en Sesión Plenaria Extraordinaria celebrada el 19 de junio de 2014, tras debatirlo suficientemente, resolvió las alegaciones que se presentaron al documento de aprobación inicial del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Olaberria (PGOU), así como otros aspectos a valorar.

En base a lo mencionado, se reformula el documento del Plan General de Ordenación Urbana en el que se recogen todas los nuevos acuerdos tomados en la sesión plenaria de 19 de junio de 2014.

Se presenta e informa a todos los corporativos el documento reformulado, en la comisión especial de planeamiento celebrada el 10 de julio de 2014.

Por lo tanto, una vez estudiado el documento se que presenta para su aprobación provisional, los corporativos acuerdan lo siguiente:

**PRIMERO:** Se acuerda por mayoría absoluta, con el voto en contra de los grupos OHE y BILDU, la aprobación del



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

Antolamenduko Plangintza Orokorraren dokumentuari onarpen probisional ematea erabakitzen da.

**BIGARRENA:** Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari dagozkion agiriak bidaltzea erabakitzen da, halabeharrezko txostena igor dezan, baita Gipuzkoako Foru Aldundiari, HAPO-a behin betiko izaerarekin onartu dezan.

**2014KO EKAINAREN 16KO  
PLANEAMENDUZKO BATZORDE  
BEREZIAN IKUSITAKO 24.1  
ZUZKIDURA JARDUKETAREN  
INGURUKO ERANSKINAREN  
ONARPEN PROBISONALA.**

2014ko ekainaren 16ko planeamenduzko batzordean, Olaberriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari aurkeztutako alegazioak aurkeztu zitzaizen udal-kideei, hauei erantzuteko txostena zein Plan Orokorrean txertatzeko zenbait aspektuekin batera.

Batzorde berean, 24.1 zuzkidura jarduketaren inguruko eranskina tratatu zen Plan Orokorrean txertatzeko gai bezala. Ez zen ordea, 2014ko ekainaren 19an egindako hurrengo Batzarrera eraman.

Ondorioz, Batzar honetara ekartzen da bere onarpenerako.

Onarpen probisionalerako aurkeztu den dokumentua aski aztertu ondoren Udal-kideek honako hau erabakitzen dute:

documento de aprobación provisional del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Olaberria.

**SEGUNDO:** Se acuerda remitir a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco la documentación oportuna para la emisión del informe preceptivo, así como a la Diputación Foral de Gipuzkoa, competente para la aprobación definitiva del PGOU.

**APROBACIÓN PROVISIONAL DEL ANEJO REFERENTE A LA UNIDAD DE DOTACIÓN 24.1, INFORMADO EN LA COMISIÓN ESPECIAL DE PLANEAMIENTO CELEBRADA EL 16 DE JUNIO DE 2014.**

En la comisión de planeamiento celebrada el 16 de junio de 2014 se informó a los corporativos de las alegaciones presentadas al Plan General de Ordenación Urbana de Olaberria, así como el informe de respuesta a las mismas y otros aspectos a considerar para su inclusión en el Plan General.

En la misma comisión se trató el anejo referente a la unidad de dotación 24.1, como uno de los temas a considerar para incluir en el Plan General, pero por omisión no se llevó al siguiente Pleno celebrado el 19 de junio de 2014.

Por lo tanto, se trae a la presente sesión plenaria para su aprobación.

Una vez estudiado el documento se que presenta para su aprobación provisional, los corporativos acuerdan lo siguiente:





**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
**(GIPUZKOA)**

**BAKARRA:** Gehiengo absolutuz, BILDU taldeko abstentzioarekin, 2014ko ekainaren 16ko planeamenduzko batzorde berezian ikusitako 24.1 zuzkidura jarduketaren inguruko eranskinaren onarpen probisional ematea erabakitzen da.

**UNICO:** Se acuerda por mayoría absoluta, con la abstención del grupo BILDU, la aprobación del anejo referente a la unidad de dotación 24.1, informado en la comisión especial de planeamiento celebrada el 16 de junio de 2014.

**AZPIEGITURA ETA HIRIGINTZA**

**INFRAESTRUCTURA**

**Y**

**URBANISMO**

**OLABERRIKO UDALLEAN  
INDARREAN DAUDEN ARAU  
SUBSIDIARIOEN HERRIBASO  
DERITZON 48 EREMUKO  
BIRPARTZELAZIO PROIEKTUAREN  
ALDAKETA DOKUMENTUARI BEHIN  
BETIKO ONARPENA EMATEA, A.2,  
B.2 ETA C LURSAILEI DAGOKIONEZ.**

**APROBACIÓN DEFINITIVA DEL  
DOCUMENTO DE MODIFICACIÓN DEL  
PROYECTO DE REPARCELACIÓN DE  
LA UNIDAD DE EJECUCIÓN DEL  
SECTOR 48 HERRIBASO DE LAS  
NORMAS SUBSIDIARIAS VIGENTES  
EN EL MUNICIPIO DE OLABERRIA,  
REFERIDO A LAS PARCELAS A.2, B.2  
Y C.**

Joan zen batzorde informatzailean udal-kideei gaiaren berri eman zitzaien.

Se informó del tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Hitzarmen Batzarraren Asanbladak, 2014ko martxoaren 10ean, hasierako onarpena eman zion 48.1 HERRIBASO sektorea borondatezko birpartzelazioari.

La Junta de Concertación de la Unidad de Ejecución 48.1 HERRIBASO de Olaberria, mediante acuerdo de Asamblea del 10 de marzo de 2014, aprobó inicialmente la modificación del Proyecto de Reparcelación de la Unidad de Ejecución 48.1 HERRIBASO de Olaberria.

Espediente hau jendaurrean egon da 20 egunez, horretarako iragarkia argitaratuz 87 zenbakidun 2014ko maiatzaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2/2006 Hirigintza eta Lurzoru Legeko 48. artikuluari jarraiki.

El expediente ha estado expuesto al público durante 20 días, publicándose el correspondiente anuncio Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 87 de fecha 12 de mayo de 2014, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 48 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo.



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
**(GIPUZKOA)**

Epe horretan ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Ondorioz, Udalbatzari proposatzen zaio dokumentu honi behin betiko onarpena ematea.

Udalbatzak gaia aztertzen du, eta ondoren bozketara pasatzen da, ondorengo hau onartzen delarik gehiengo absolutuz, BILDU taldeko zinegotzien abstentzioarekin:

**LEHENENGOA:** 48.1 HERRIBASO sektoreko borondatezko birpartzelazioari behin betiko onarpena ematea.”

**BIGARRENA:** Akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea eta afektatu guztiei jakinaraztea.

**OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU  
TEKNIKOAK**

**3.000 EUROTIK GORAKO FAKTUREN  
ONARPENA.**

Joan zen batzorde informatzailean faktura bakoitzaren berri eman zitzairen udal-kideei.

En ese periodo no se ha presentado reclamación alguna.

Por ello, se propone al Pleno conceder la aprobación definitiva a este documento.

El Pleno estudia el tema, y se aprueba lo siguiente por mayoría absoluta, con la abstención de los concejales del grupo BILDU:

**PRIMERO:** aprobar definitivamente la modificación del Proyecto de Reparcelación de la Unidad de Ejecución 48.1 HERRIBASO de Olaberria.

**SEGUNDO:** Publicar el presente acuerdo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y notificarlo personalmente a todos los afectados.

**HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS  
MUNICIPALES**

**APROBACIÓN DE LAS FACTURAS  
SUPERIORES A 3.000 EUROS.**

Se dio cuenta de cada factura a los corporativos en la pasada comisión informativa.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

2014/07/17KO BILKURA

3.000 EUROTIK GORAKO FAKTURAK  
Facturas que superan los 3.000 euros

ZBK.	IZENA	CIF	ADO	AZALPENA	KOPURUA
1	IVAP	A2040001F	ADO-616/2014	1264/14	4.112,49 €
2	IBERDROLA		ADO-607/2014	29/05/14	4.340,32 €
3	E.IGARTUA ESTUDIOS Y PROYECTOS S.L.P.	B20826426	ADO-587/2014	20/14	3.146,88 €
4	GOROLDI S.L.U.	B20502613	ADO-567/2014	1400830	3.233,79 €
5	SOROA ARQUITECTOS S.L.P.	B20758884	ADO-537/2014	42/2014	7.277,30 €
6	EULEN S.A.	A28517308	ADO-622/2014	2770754	4.279,92 €
7	GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	B20928131	ADO-631/2014	139/14	3.555,09 €
8	GOROLDI S.L.U.	B20502613	ADO-657/2014	140169	3.233,79 €
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					
16					
17					
18					
19					
20					
21					
22					
23					
24					
25					
26					
27					
28					
29					
30					
31					
32					
33					
34					
35					
36					
37					
38					
39					
40					
41					
42					
43					
44					
45					
46					
47					
48					

GUZTIRA 33.179,58 €

Olaberri, 2014ko uztailaren 7an



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

Fakturak bozkatzen dira gehiengo absolutuz onartzen direlarik, BILDU taldeko zinegotzien kontrako botoarekin.

Bildu taldeko zinegotzia den Sarasola jaunak IVAP –ek Plan Orokorra euskaratzeagatik bidalitako fakturaren inguruan zera dio:

Udalak ez dauka zertan ordaindu beharrik euskaratze lana, Udalak eskatutako proiektuak gutxienez euskaraz egon behar dira.

**DIRUZAINTZAREN  
INFORMAZIOA.**

**EGOERA.**

Udal-kideei 2014ko uztailaren 7ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira, **1.916.022,81 euro** ditu.

Udal kideak jakinaren berri gelditzen dira.

**GALDERA ETA ERREGUAK**

**Iñigo Sarasola ( BILDU taldea)**

Se procede a votar las facturas que son aprobadas por mayoría absoluta con el voto en contra de los concejales del grupo BILDU.

El concejal del grupo BILDU Iñigo Sarasola aduce lo siguiente en relación a la factura de traducción al euskera del Plan General emitida por el IVAP:

El Ayuntamiento no tiene porqué pagar por traducciones al euskera, los proyectos pedidos por el Ayuntamiento se deben presentar al menos en euskera.

**SITUACIÓN DE TESORERÍA.  
INFORMACIÓN.**

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 7 de julio de 2014.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **1.916.022,81 euros**.

Los Corporativos quedan al corriente.

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

**Iñigo Sarasola ( grupo BILDU)**



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
(GIPUZKOA)

- **Tiro platoaren itxiera**

Euskadiko Epaitegi Nagusiaren agindua betez, noiz ixteko asmoa duzue tiro plato zelaia?

Itxiera data zehatz bat eskatzen du.

Alkateak dio Udalak zehatz-mehatz beteko duela Euskadiko Auzitegi Nagusiak emandako epaia.

- **Jaurlaritzako Ingurumen Departamentura agirien igorpena**

Bidali al dira Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera Udalak tiro eremuko luraren kalitatearen inguruan egindako txostenak?

Alkateak galderari erantzunez dio, Batzar honek probisionalki onartu duen Plan Orokorrak bere baitan dituen agirien artean txosten hau dagoela eta bihar bertan bidaliko direla, bai Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera baita Foru Aldundira ere, gaur onartutako Dokumentua bere baitan dituen eranskin eta txosten guztiekin batera.

Sarasola jaunak Ingurumen Sailera bidaliko denaren kopia eskatzen du.

- **Clausura del tiro al plato**

En cumplimiento de la orden del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, cuándo pensáis clausurar el tiro al plato?

Solicita una fecha concreta de cierre.

El Alcalde afirma que el Ayuntamiento va a cumplir escrupulosamente lo ordenado por la Sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

- **Remisión de documentación al Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.**

Se han remitido al Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco los informes realizado por el Ayuntamiento a cerca de la calidad del suelo del campo de tiro?

El Alcalde, en respuesta a la pregunta formulada contesta que ese documento es parte del documento de aprobación provisional del Plan General que el Pleno ha aprobado hoy.

Que el documento de aprobación provisional del Plan General, junto con todos los informes y anexos que forman parte de él, se remitirán mañana mismo tanto al Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco como a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El Sr. Sarasola pide una copia de lo que se mande al Departamento de Medio Ambiente.



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
(GIPUZKOA)

**Bertaratutakoek egindako galdera eta erreguak**

Zubiarrain jaunak, Sarasola jaunak esandakoarekin jarraituz, zera dio: kontutan izanik aipatu txostenak kutsadura dagoela ondorioztatzen duela, Udalak ez luke lurraren kalifikazioari buruzko txosten horren berri eman behar Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari Plan Orokorretik aparte?

Honen inguruko eztabaida baten ondoren Alkate, Sarasola eta Zubiarrain jaunen artean, Alkateak gaiari bukaera ematen dio aipamen hauek eginez:

- Txosten horrek kutsadura parametro batzuk jasotzen ditu eta ingurumen-organoari dagokio txosten horren azterketa, baita ondorioak ateratzea ere.
- Horrelako txostenen aurrean, Legeak zehazten du zein kasutan jakinarazi behar zaizkion Jaurlaritzako Ingurumen Sailari, kasu horietako bat Plan Orokorrena izanik.
- Udalak, bihar bertan Plan Orokorra eta honen baitan dauden dokumentu guztiak Ingurumen Sailera igorriko ditu, aipatu txostena barne.
- Edozein kasutan, Udalak Legeak esandakoa beteko du zehatz-mehatz.

**Ruegos y preguntas formuladas por el público**

El Sr. Jon Zubiarrain haciendo hincapié en lo expuesto por el Sr. Sarasola matiza lo siguiente: a la vista del contenido del citado informe que concluye la existencia de contaminación, no debería el Ayuntamiento comunicar al Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco el mismo con independencia del Plan General?

Tras una discusión entre el Alcalde y los Sres. Sarasola y Zubiarrain, el Alcalde da por zanjada la misma realizando las siguientes afirmaciones:

- El citado informe recoge unos parámetros de contaminación, cuyo análisis y extracción de conclusiones corresponde al órgano ambiental.
- Frente a informes como ese, la Ley establece los casos concretos en los cuales hay que notificar al Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, siendo uno de ellos la tramitación del Plan General.
- El Ayuntamiento va a remitir mañana mismo al Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco toda la documentación que integra el Plan General, incluido el referido informe.
- En cualquier caso, el Ayuntamiento cumplirá a rajatabla la Ley.



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
**(GIPUZKOA)**

**Eta aztertzekeo beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura arratsaldeko sei'terdiak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkaria naizenez, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las dieciocho horas y treinta minutos, y yo, la Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.**

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA**